

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Bermeoko Udala**

Lehiaketa iragarkia: Bermeoko Aritzatxu hondartzako kantinaren eta komunen emakida administratiboa ematea.

2025eko apirilaren 8ko Tokiko Gobernu Batzarraren akordio bidez emakida esleitzeko oinarriak onartu dira, espedienteari hasiera emanez. Iragarki honen bidez Bermeoko Aritzatxu hondartzako kantinaren eta komunen erabilera pribatibo eta arrunterako administrazio-emakida esleitzeko deialdia egiten da.

Iragarki honen bidez deialdia irekitzen da.

1. Erakunde esleitzailerak:
 - Erakundea: Bermeoko Udala.
 - Espedientea izapidetzen duen bulegoa: Idazkaritza Saila.
 - Espediente-zenbakia: IDA_ERA_0029_2025.
2. Dokumentazioa eta informazioa lortzea:
 - Bulegoa: Idazkaritza Saila.
 - Helbidea: Arana eta Goiri tar Sabinen enparantza, z/g.
 - Herria eta posta kodea: Bermeo, 48370.
 - Telefonoa: 946 179 105.
 - Webgunea: www.bermeo.eus
3. Lizitazioaren xedea:
 - a) Mota: Administrazio-emakida.
 - b) Deskribapena: Erabilera pribatibo eta arruntaren emakida ematea.
 - c) Iraupena: Erabilera pribatibo eta arruntaren emakidaren iraupena urte batekoa izango da, emakida formalizatzen den egunetik zenbatzen hasita, eta ezin izango da luzatu. Urteko epealdia:
 - Udan: 2025eko ekainaren 1etik 2025eko irailaren 30era.
 - Aste Santuan: 2026ko martxoaren 28tik apirilaren 12ra.
4. Izapideak eta prozedura:
 - Tramitazioa: Arrunta.
 - Prozedura: Irekia.
 - Modua: Lehiaketa.
 - Lizitaziorako gutxieneko kanona: 300,00 euro/hileko.
5. Bermeak:
 - Behin-behineko bermea: Ez da eskatzen.
 - Behin betiko bermea: 1.814,27 euro (eraikuntzaren balioaren %3a).
6. Eskaintzak aurkeztea:
 - a) Aurkezteko azken eguna: Laneko 15 egun, dagokion iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita.
 - b) Aurkeztu beharreko agiriak: Lizitatzailerak bi gutun-azal edo artxibo elektronikotan aurkeztuko dituzte beren proposamenak, modu honetan:
 - A gutun-azalean edo artxibo elektronikoan:
 1. Emakidaduna izateko baldintzak betetzearen zinpeko aitortpena (I. Eranskina).
 2. Mantenu eta garbiketa programa.
 3. Elementu eta altzarien proposamena.



- B gutun-azalean edo artxibo elektronikoan:
 - 1. Proposamen ekonomikoa (II. eranskina).
 - 2. Dinamizatzeko plana.
- c) Aurkezteko modua:
 - BERHAZ arreta bulegoa (Ertzilla kalea, 6-8, 48370 Bermeo).
 - Bermeoko kontratugilearen profilean: <https://www.bermeo.eus/1470.html> (Kontratuaren kodea: IDA_ERA_0029_2025).
 - Legez aurreikusitako gainerako moduetan, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen arabera.
- 7. Esleipen irizpideak:
 - 1. Eskaintza ekonomikoa: 50 puntu.
 - 2. Emakidaren objektu diren espazio eta lokalen mantenu eta garbiketa programa: 25 puntu.
 - 3. Aritzatxuko Hondartza dinamizatzeko plana: 20 puntu.
 - 4. Lehiatzaileak ipiniko dituen elementu eta altzarien itxura eta ergonomia: 5 puntu.
- 8. Eskaintzak irekitzea:
 - Erakundea: Kontratazio-mahaia.
 - Eguna: Bermeoko Udalaren Web orrian eta kontratugile profilean adierazitako eguna eta ordua.

Bermeon, 2025eko apirilaren 8an.— Alkatea, Nadia Nemeh Shomaly